

Europa bakarra, Europa anitzak

Joseba Arregi
Eusko Legebiltzarkidea

Hitzaldi honetan egiten dudan galdera Europaren batasunarena da, eta galdera honen inguruan jakingarri iruditzen zaidana zera da: zerk egiten duen hain zail Europaren batasun hori.

Eztabaidatu ezineko zerbait da Europa une berean batasun eta aniztasun moduan atzematen dugula. Europar pentsamendutik ezin dezakegu ez bata ez bestea ken. Europa ez litzateke Europa izango europar guztiok kultur ondare berdineko oinordeko sentituko ez bagina. Era berean Europa ez litzateke Europa izango hizkuntz eta kultur ezberdintasun ugariren lekuko ez balitz.

Arazoaren mamia, eta hau da artikuluaresen tesi nagusia, honetan datza ordea, Europak bere batasuna, absolutismoaren eta unibertsaltasunaren nahian oinarritu duela, baina unibertsaltasun eta absoluto nahi hori estatu-nazio partikularretan gauzatu duela. Eta kontraesan honen fruitua da Europaren batasun bidean bizi dugun ezintasuna.

The speech discusses about the matter of the European Unity, and, regarding to this subject, what is really interesting to me is to analyse what makes difficult the European Unity.

We perceive Europe both as an unity and as a plurality at the same time. We can not remove none of them from the European feeling. Europe could not be Europe if all the European would not feel heir of the same cultural patrimony; in the same way, Europe could not be Europe if it would not be witness of different languages and cultures.

The essence of the matter, which is precisely the aim of this article, is the following: Europe has based its Unity on its wishes of absolutism and universality, but these wishes have been made reality only in particular states-nations. The impossibility we find in the way to the European Unity is a consequence of this basic contradiction.

Gaur egun Europaz hitz egiten dugunean azken hilabeteetan gertatutakoek eragiten dute gure iritzia. Eta azken urte eta hilabeteetan gertatutakoa itxaropentsua izan beharrean neurri handi batean ezkorra denez gero, Europa ezinezko zerbait lez agertzen zaigu. Badirudi Europa hitzak gaur egun, geroz eta gehiago, une berean beharrezkoa eta ezinezkoa denak sortzen duen etsipen amorratua edo frustrazioa sortarazten duela guregan.

Arazoaren benetako mamia, ordea, ez dago agian aurreko hitz edo lerroetan behar bezala adierazirik. Europa, Europa batu bat beharrezko dela, beharrezko zaigula, sentitzen dugu. Baina ez dugu geure burua Europa hori behar bezala definitzeko gai ikusten. Horrek egiten du ezinezko: Europa hitzari itxura zehatz bat emateko, eta itxura edo forma hori lortzeko bidearen nondik norakoa markatzeko gure gaitasunik ezak.

Honelako egoeretan ez da alferriakoa izaten Europaren batasunaren gogoa, ametsa eta ideia noiz eta zergatik sortu ziren gogora ekartzea.

Badirudi Europa batu baten beharra, gaur egun, batez ere Iparramerikatik eta Japoniatik letorkigukeen arrisku ekonomiko eta teknologikoan oinarritzen dela. Etorbizunari aurre egin nahi bazaio, etorkizun horren muina teknologiaren garapenean oinarritutako ekonomian egongo denez gero, beharrezkoa da Europa batu bat, Europako herrialde bakoitza txikiegia delako EEBBen eta Japoniaren aurrean.

Orain dela 50 urte giroa guztiz bes-telakoa zen ordea. Europa batu bat amestu zutenek bakea zuten batez ere gogoan. Bake ideia gisa hasi ziren

Europa batuaz hitz egiten. Oso denbora gutxian, 50 urteren buruan, edo 75 urteren buruan Frantziaren eta Prusiaren arteko gerratea Europako lehen gerrate moduan ulertzen bada, askok egiten duten bezala, Europa odolez blai utzi zuten gerrateen oroimenak bultzatuta.

Eta gerrate horien oinarrian ikatz-meategiak eta altzairua produzitzeko gaitasuna ere egon zirelako, hortik hasi ziren, Altzairuaren eta Ikatzaren Hitzarmena sinatuz, eta gero Europako merkatu Batuaren oinarria Erromako elkar hartzean jarritz.

Honela Europa ideia bat izatetik batasun ekonomiko bat izatera pasa da, eta zerbait falta zaiola uste bada, ez da berriro bakea oinarritzat hartzea, ez, politika-mailako zenbait antolamendu baizik (dela Europako Parlamentuaren boterea zabaltzea, dela Bruselako Komisioaren boterea murriztea, dela Komisio hori gobernu modura eratzea, dela herrialde, estatu eta Europako erakundeen arteko ahalmen-banaketa behingoz, konstituzio moduko baten bitartez, argitzea).

Europa bateratu baten ideia eta asmoa ez dira, ordea, Bigarren Mundu-Gerraren ondoren hutsetik sortutakoak, Europa hitza aipatzeak berak elkarri kontrajarritako bi ideia ekartzen baititu gogora: batasuna eta aniztasuna.

Europa esaten dugunean jakina eta ezaguna den zerbaiti buruz ari garela uste dugu, ideia edo kontzeptu bati buruz, ez askori buruz.

Eta une berean, Europa esaten dugunean, Europako hizkuntzak, Europako tradizioak, Europako herrialdeak, Europako erlijioak datozkigu burura.

Erromatarrek egin nahi izan zuten Europaren batasuna. Erromatar-Germaniar inperioek Erdi Aroan berdin; Europa katolikotasunean eta kristautasunean bateraturik egon zen luzaroan. Napoleonek ere ia lortu zuen Europa bateratzea iraultzaren izenean.

Baina batasun horiek ez dute sekulan sendotasunik lortu. Behin eta berriz indarra erabili behar izan dute batasunari eusteko. Eta honek berak erakusten du batasuna, historian bilatutako Europako batasuna, ez dela partaideen borondateetik sortutakoa izan, norbaitek benetan gizaki guztientzat baliozkoa den egia deskubritu duela uste izatetik baizik, eta egia unibertsal horri indarrez bidea ireki nahi izanagatik baizik.

Batasun-ahalegin guztiek porrot egiten dute, indarra dutelako egia nagusi. Eta Europako historiak zerbait erakusten badigu, zera da, gerrateak direla pertsonen eta herrien, taldeen arteko harremanik ohikoenak. Europako historia bat egiten hasiz gero, gerrateen zerrenda luze bat da emaitzarik seguruena.

Eta hala eta guztiz ere, normala da edonork Greziako pentsalarien filosofia bere tradiziotzat hartzea, kristautasunarekin gertatzen den bezala, eta baita erromatarrek gauzatu zuten eskubide-zentzuarekin eta sistemarekin ere. Europako edonorentzat dira Aristotele, Platon, Zieron, Isaias, Agustin donea, Galileo, Koperniko, Kant, Voltaire, Newton, Hume, Milton, Shakespeare eta Cervantes bere tradizio. Europar guztiok gaude Europako kultur tradizioan baturik. Bagara europarrak.

Europak ez du, ordea, batasun politikorik lortzen. Horrenbeste porrot ikusi ondoren, norbaitek pentsa dezake

hobe dela uztea, ahalegin hutsaletan jarraitzeak ez duela merezi. Europako batasunaren arrazoia garapen teknologikoa eta ekonomikoa bada, badago biderik ekonomi eta teknologi mailan elkar hartzeko, batasun politiko baten beharrik gabe. Arrazoia berriz beti mesfidagarri, edo azken garaietan handiegi bihurtu den Alemania men-debalean eta demokrazian tinko lotzea bada, hori ere lor daiteke ezinezkoa dirudien batasun politikoan behin eta berriz porrot egin gabe.

Askorentzat, gaur egun, aipatu berri dudan jarrera, oharkabea bada ere, praktikan indarra hartzen doan jarrera da. Baina Europak, bere ideiak, bere batasun-ametsak, ez ditu eta ezin ditu europar hiritarrak bakean utzi.

Eta ezin ditu bakean utzi Europako kultur tradizioan unibertsaltasunaren ametsa eta ideala garatu direlako, eta gaur eguneko europarrok tradizio, amets eta ideia horien oinordekoak garelako. Erdi Aroko filosofoek «ens, bonum et unum convertuntur» ziotenean Greziatik zetorren tradizioari eusten zioten eta gerorako oinarriak jartzen, alegia, badagoela izatean oinarritutako batasun bat, ezaguera eta arrazoi unibertsal baten oinarri dena, eta gizarte-eraketan eta onaren definizioan ere bere islada duena, edo izan beharko lukeena.

Batez ere Ilustrazioan, eta Ilustrazioaz geroztik arlo guztietara zabaltzen den giza askatasunaren oinarritzat adimena hartzen denean, gizaki guztientzat nonahi eta edonoiz berdina den adimena, hau da, unibertsala den adimena, ezagutza-mailan (egia), etika-mailan (ontasuna), eta politika mailan (askatasuna eta bakea) unibertsaltasunaren irrika eta nahia, eta lor daitekeelako ustea Europako kultura-

ren barru-barruan itsatsirik dagoen zerbait da.

Unibertsaltasun nahi honekin batera, ordea, Europako kulturaren elementu nagusia da, teoriarik eta praktikan, diferentzia behar bezala baloratzea, gizabanakoari dagozkionetan, eta baita herrialde bakoitzeko kultur gorpuzkerari dagokionean ere.

Europa beraz, behin eta berriz, unibertsaltasun nahiaren eta diferentziaren errealitatearen, eta legitimazioaren artean etenlarriak aurkitzen da bere historian. Bi printzipio horien artean harreman orekatu bat aurkitzeko ahaleginak ez dira falta izan pentsamendu-mailan. Eta askotan elkarri kontrajarritako pentsamolde gisa ikusten ditugunak, bi printzipioak elkartzeko borondate eta ahalegin bezala ere uler daitezke. Ilustrazioaren razionalismo unibertsalistaren ondoren erromantizismoak kultura jakin bakoitzaren balioa azpimarratzen du. Baina Kant-ek berak bere azken idazkietan mamirik gabeko arrazionalismoari gizabanakoaren eta bere sentimenduen balioa erantzen dion bezala, erromantizismoak ez dio uko egiten, bere osotasunean, unibertsaltasun nahia.

Europako praktika politikoak, ordea, ez du oreka edo bi printzipioak elkartu nahiaren bidea jarraitzen. Unibertsaltasunak eta partikularitasunak etenlarriak beteriko egoera bizi dute Europako praktika politikoan, praktika politiko hori estatu nazioetan gorpuzten baita.

Eta hemen dago katea, zergatik ikusten den Europa une berean beharrezko eta ezinezko, zergatik unibertsaltasunak eta diferentziak eraketa

politikoan ez duten orekarik aurkitzen. Europaren batasunaz hitz egiten dugunean, ez da artea, ez kultura, ez tradizioa arazo- edo oztopo-iturri, praktika politikoak baizik, estatu nazionala. Hau da beraz aztertu beharrekoa. Noiz, nola, zergatik sortzen dira estatu nazionalak? Zein da euren esanahia? Zein egoeratan aurkitzen dira gaur egun? Zein da euren etorkizuna?

Beste eraketa politikorik ezagutu ez dugunontzat, estatu nazionalak diren eraketa politikoak naturaltasunaren indarrez jantzirik agertzen zaizkigu, gizarte-barruko harremanak eratzeke beste modurik ez balego bezala, edota historiaren garapenean lor daitezkeen mailarik gorena bailitzan, historiak gehiago aurrera egiterik ez balu bezala.

Baina estatu nazionalak bilakaera historiko jakin baten ondorio garbi dira. Europa batuaz hitz egiterakoan beti estatu nazionalarekin topo egiten dugunez gero, azter ditzagun, labur bada ere, estatu nazionalaren ideia eta errealitatea osatzen duten elementu batzuk, historiatik hasita.

Zuen baimenarekin, aipamen-pare bat ekarri nahi nituzke. Norbert Elias-ek honela dio bere *Zibilizazio bilakaerari buruz* deituriko lan bikainean¹:

Edo ikusten da baita ere, nola guk Estatua deitzen dugunaren lehen formak poliki-poliki moldatzen doazen. Aurreko kapituluetan azaldu da "absolutismoaren" garaian "zibilizazio" izenpean, nola konportamendua nabari gaur "zibilizazio" hitzetik erakarritako hitz batez, zibilizatu hitzez, izendatzen dugunaren norabidean aldatzen doan; eta horregatik beharrezkoa zirudien, zibilizazio-bilakaera hau argitu ahal izateko, irudi garbiago bat lortzea, honelako antolaketa absolu-

1. Artikulugileak euskaratuak dira hau eta ondorengo aipamen guztiak.

tista bat nola osatu zen, eta honen eskutik Estatu absolutista baten osakera argitzea...

Zentzu honetan galdetzen dugu lan honetan Estatuaren soziogenesiaz. Hor dago, bere osakera eta eraketan, historiaren alde bat hartzeko, indar-monopolioaren arazoa. Max Weber-ek jadanik adierazi du, definizio gisa, guk Estatuak deitzen dugun gizarte-eraketaren elementu osagarrietako bat indar fisikoa eragiteko monopolioa dela. Lan honen ahaleginetako bat da indarraren eragiketa elkarren aurka ziharduten gertakari-kopuru baten pribilegio zen garaitik, ezari-ezarian indar fisikoaren eragiketaren eta bere bitartekoen zentralizatzeko eta monopolizatzeko batera daramaten gertaera historiko zehatzak neurri batean aztertzea. Erakuts daiteke, honelako monopolio bat osatzen joateko joera ez dela ez ulergarriago, ez ulergaitzago, gaur eguneko monopolioak osatzeko joera indartsuak ulertzea baino... (Elias 1977: 76-78).

Norbert Elias-en azalpenak luze-zabalean berrematerik ez dagoenez gero, elementurik nagusienak gogora ditzagun: gaur egun zibilizazioa eta jokaera zibilizatua deitzen duguna, bilakaera luze baten emaitza da, zeinean hizkerarekin, begiradarekin, gorputzaren funtzioekin eta pertsonen arteko harremanekin zerikusia duten jokabideak geroz eta kontrol handiago baten mende jartzen diren, lehenik gizarte-kontrol baten mende, gero kontrolgune hori barneratu egiten delarik. Zibilizazio-bilakaera beraz, afektuen, sentimenduen, jokaeren, sentsibilitatearen kontrol bat da.

Kontrol hori, ordea, Norbert Elias-en planteamenduan, gizarte bilakaera, prozesu bat ere bada. Afektuen kontrola gizarte-harremanekin loturik dago, eta batez ere gizarte-barruan giza talde batzuek besteekiko duten dependentziakin.

Gizarte-barruko dependentzi harreman horiek, berriz, agintarekin daude loturik, hau da, indarrarekin, lurraren jabegoarekin (lehenik), eta diruaren jabegoarekin (gero). Aipamenean garbi gelditzen den bezala, indarra, indar fisikoa, Norbert Elias-ek zehazki aztertu eta argitu dituen mekanismoen bitartez, monopolizatuz doa, antolaketa absolutista guztiz bakar baten eskutian gelditzeraino. Eta honetan Estatuaren oinarria jarrita dago.

Bilakaera bikoitz honen barruan garrantzi handiko fenomenoak ematen dira: lurraldearen edo lurraldeen bakeztatzea, jokaeren rrazionalizazioa, epe luze pentsatzeko gaitasuna garatzea, kanpoko beldurrak gutxitzea, borrokak barneratzea, psikologizazioa, gizarte-mailan eta ekonomi mailan harreman-kateak luzatzea, eta honekin batera, eta pentsamendua luzera begira jartzearekin batera, eskubidea eta agintea bera orokortzeko, generalizatzeko oinarriak jartzea, etab. Hau da estatu modernoaren eta eskubidezko estatuaren osatzen duten mekanismoen bilakaera eta osaketa.

Elementu eta joera horien esanahia zehaztea alde batera utzita, gure gaurko gairako zuzeneko garrantzia duten elementuak azpimarra ditzadan: lehenik, Estatuak, estatu nazionalak, bilakatutako zerbait dira. Bigarrenez, bere jaiotze-unea gizartearen antolaketa absolutista bat lortze-garaia da. Eta hirugarrenez, zibilizazioaren bilakaera eta Estatuaren bilakaera hertsiki loturik daude, eta hauen erdigunean gizabanakoaren pertsonatasunaren barne-antolamendua ematen da.

Horregatik, Estatuak bere oinarria absolutismoan duenez gero, unibertsaltasun nahiaren isla beti dago berarekin, eta unibertsaltasunak natu-

raltasuna, berezkotasuna esan nahi du. Ordea, estatuak estatu nazional gisa bakarrik eraiki dira, horrela bakarrik gorpuzten dira. Horretara daramaten mekanismoak, egin beharreko zehaztasunak kontutan hartuta ere, berdinak dira alde guztietan, “unibertsalak”, gizaki zibilizatuen nortasun-eraketa berdina, “unibertsala” den bezala. Baina Estatuak partikularrak dira, lurralde zehatz bati lotutakoak.

Honelako zerbait adierazten du N. Elias-ek hurrengo aipamen honetan:

Gure kontzientziak historian mugitzen den guztia geldirik dagoen eta bilakae-rarik gabeko zerbait bezala agertzeko joera duen “estatismoaren” (*Scylla*) eta historian etengabeko aldaketa bakarrik ikusten duen erlatibismo historikoaren (*Caribdis*) artean pasadizo bat aurkitu nahi izatera ez gaitu jarrera teoriko batek bultzatzen, bizitzako esperientziak baizik, erlatibismo historikoak ez baitu lortzen aldaketaren ordena eta eraketa historikoaren moldaketa-legeak ikustea.

Azterketa soziogenetikoaren eta psikogenetikoaren helburua aldaketa historikoen ordena, bere mekanika eta mekanismo zehatzak azalratzea da. Bilakaera historikoen arazoak erantzun bat jasotzen du lan honetan, galderak alegia, nola uler daitekeen bilakaera hauek guztiak gizabanakoen ekintzen emaitza izatea, eta hala eta guztiz ere, bilakaera horietan erakunde eta eraketak sortzea, bere itxura zehatzean inoren asmo eta borondatetik sortu gabe (Elias 1977: 77-79).

Historian aldaketa da nagusi, baina aldaketa horiek badute ordena bat. Eta aldaketa historikoak gizabanakoen emaitza dira, baina sortzen diren eraketa eta erakundeak ez dira inoren borondatearen emaitza. Horregatik guztiatik azaltzen zaizkigu naturaltasunaren indarrez jantzirik, estatu na-

zionalaren kasuan, absolutismoan oinarriturik, unibertsaltasun nahiaren zentzua daramate, baina lurralde zehatz eta mugatueta bakarrik gauzatzen dira.

Azter dezagun arazoa beste ikuspegi batetik. Ernst Troeltsch soziologoak bere erlijioaren soziologiari buruzko lanetan honako hau planteatzen du: garai berrietako eraketa politikoez, estatu nazionalak, European nagusi izan zen kristautasunaren oinordekotza jasotzen dute. Kristautasunak, bere forma ezberdinetan, pertsona osoaren salbamena eskaintzen du, salbamen oso hori mundu honetan ezinezkoa eta beste mundurako promesa izanik.

Mundu modernoaren hasieretan, erlijio-gerrateen ondorioz, egia erlijio-soa iritzi publikotik kontzientzia pribatura mugatzen denean, pertsonen salbamena, beraien ongi izatea, estatuen eginkizuna da. Eta eginkizun hori ez da ongi izate materialera mugatzen, ondasunei lotutakora, kritautasunaren eginkizunaren islada estatuaren ahaleginetan ere ikus daiteke: pertsona osoari eta bere behar guztiei erantzun nahi die erakunde bezala.

Bere osotasun nahi honetan ezintasunarekin egiten du topo, ordea, eta honek berebiziko etenlarriak sortzen ditu bere barruan. Troeltsch-en iritzian egoera hau gehiago ematen da Frantziako iraultzatik sortutako demokrazia tradizioan, tradizio anglosaxoniarran baino. Hau erlijioaren eta eliz erakundeen kontra gutxiago sortzen den neurrian, estatu-erakunde zeregina arazo materialetara gehiago mugatuko da, beste eginkizunak elizen eskutan utzirik. Frantziako iraultzaren tradizioan sortutakoetan, ordea, estatuak erlijioaren eta elizen tokia hartzen du, eta honekin beraien eginkizun guztiak,

gisa sekular batean bada ere. Horregatik, bere mugapen eta partikularitasunean bete ezin dituen promesak egitera beharturik aurkitzen da, eta etenlarri hori barne-barnetik bizi du.

Etenlarri honen esanahia oraindik hobeto ikusten da J. Habermas, alemaniar filosofoak identitatearen historiari buruz esaten dituenetan. Habermas-en iritzian identitatearen bilakaera erlijioaren bilakaerarekin loturik dago: erlijio naturalistari identitate naturala dagokio, inguru naturalean murgildutako eta itsatsitako identitatea, naturako zerbaitekin identifikatzen dena; erlijioek taldeak definitzeko funtzioa lortzen dutenean, identitatea talde-identitate bihurtzen da, hau da, taldean murgildurik eta taldera itsatsirik aurkitzen da gizabanakoa bere identitatean. Eta azkenik, erlijioa unibertsal bihurtzen denean, kristautasunarekin, identitatea une berean banako eta unibertsal bihurtzen da.

Puntu honetara heldurik, Habermas-ek honako galdera egiten du: zer gertatzen da identitate banako eta unibertsalaren baldintza izan zen kristautasunaren Jainkoa Europako kontzientzia publikotik desagertzen denean? Gure gaurko gairako interesgarria galdera honen erantzuna da. Honela dio: bi identitate-mota dira oinordekotza bere gain hartzen dutenak, nazio-identitatea eta klase-identitatea, biak partikularrak, biak talde-identitateak, baina biak unibertsal izateko nahiaz horniturik. Eta horren ondorioz biek izan dute inperialismorako joera.

Ikus dezakegunez, behin eta berriz etenlarri bera agertzen zaigu, unibertsaltasun nahia eta errealtateko partikularitasuna, eta biak estatu nazionalaren kontzeptuan eta praktikan bat eginik.

Jarrai dezagun etenlarri, kontraesan hori aztertzen. Politika-jakintzetan ohikoa bihurtu da bi eratako nazioak bereiztea: nazio politikoak eta kultur nazioak. Nazio politikoak eraikuntza razionalak lirateke, hiritarrak onartuz, hauen borondatek goi-mailako helburu bat lortzeko asmoz sortzen diren gizarte-eraketak. Goi-mailako helburu hori, Ilustraziotik jasota, eskubidezko ordena eraikitzea eta honi eustea litzateke.

Estatuaren berezko eginkizuna Kant-ek eskubidezko ordena eraiki eta honi eustean jartzen du. Eskubidearen mamia gizabanakoaren legezko mugatzean datza, era berean mugatutako besteen askatasunarekin akordioan jartzeko. Eskubidezko ordenaren perfekzioa honetan datza: eskubide-ziurtasunik beteenean bakoitzaren mugimenduak askatasunik handiena ahalbideratzean. Leibniz-en metafisika gogora ekarriz: mundurik onenaren mamia ahal den errealtate konposaturik gehiena gauzatzean datzan bezala, eskubide-konstituziorik onena askatasun konposaturik gehiena gauzatzean datza (Paulsen 1924: 362).

Kultur nazioa berriz, berez (naturaz) emaniko zerbaitetan oinarriturik eraikitzen dena litzateke, batez ere hizkuntzan eta kultur tradizioan. Kultur nazioaren helburua kultur eta hizkuntzazko identitatea gauzatuz, komunitatea eraikitzea da, honi forma politikoa emanez.

Nazio-politikoaz hitz egiteko Ilustrazioko autoreak eta joerak aipatzen dira. Adibide bat:

Joera liberal erradikalarentzat nazioa fikzio, asmakizun juridiko lez, ez da existitzen gizabanakoen arteko konstituzio-ituna ematen ez den bitartean, eta itun hori gauzatzeko gai den eraketa juridiko-politiko. Nazioa eta Estatu gauza bat

eta bera dira, nazioa, hain zuzen, itune-
tik sortzen delako. Sièyes-ek oso ondo
isladatzen du nazioaren eta Estatuaren
bat etortze hau nazioa honela definitzen
duenean: lege berdinarene menpe,
legebiltzar berdinean ordezkaturik bizi
den elkartuen gorputza, ituna edozeren
iturburu delarik (Jauregui 1988: 50).

Kultur nazio kontzeptua berriz erro-
mantizismo alemaniarren altzoan
kokatzen da beti: Herder eta Fichte
aipatzen dira aitzindari nagusi
moduan.

Alemanian oinarritutako tradizio na-
zionalista batek gertakizun nazionalaren
beste ulermen bat eskainiko du, kultur
nazioaren ideia eramango duena. Hau
esateak ez du inola ere esan nahi,
alemaniar nazionalismoaren aberastasu-
na baztertzeko denik, zeinetan XIX.
mendearen hasieratik eragin liberalak,
erromantikoak, kulturalistak eta bereziki
politikoak nahasten, elkartzen diren.
Baina arazoaren konplexutasuna argi
eta garbi onartuta ere, zilegi deritzot
Herder eta Fichte-ren lanaren esanahia
azpimarratzeari, nazio ideia ulertzeko
modu baten adibide gisa, eta hau aurre-
tik aztertutakotik geroz eta urrunago
dago (Blas 1995,:38).

Abertzaletasun alemaniar honen
helburua, nazioa soilik kulturaren
bitartez definitzea da, eta hizkuntzak
toki berezia hartzen du. Nazio kultu-
raleko partaideek euren askatasuna
eta garapena nazio izate baten zerbi-
tzutan bakarrik lor dezakete, eta nazio
izate hori Estatu propio baten beha-
rretan dago.

Estatu nazionala ulertzeko bi modu
horiek aipatu baditut, ez da beraien
azterketa zehatz bat egiteko asmoz
orain, ezta ere Europako zein kasutan
ematen den bata, zeinetan bestea.
Interesatzen zaiguna beste hau da:
saillkapen honetan berriro orain artean
azaldu zaigun dialektika edo etenlarri

berbera dagoela agerian. Nazio politi-
koa unibertsaltasun nahian oinarriturik
egongo litzateke, adimenak gidaturiko
gizarte-eraikuntza bat, hiritarrak bere
hiritartasunean kontsideratzen dituen.

Bestea berriz, kultur nazioa, partiku-
lartasunaren gauzatzea izango litzate-
ke, hiritarren kontsiderazioaren aurre-
tik beraiei berez emana zaiena ikusten
eta baloratzen duena, eta taldea
sortzen duen honi eraketa politikoa
eman nahi diona.

Teorian bi nazio kontzeptuak bereiz
badaitezke ere, nahikoa begibistakoa
dela iruditzen zait Europako errealitate
historikoan ez dela eredu garbirik
gauzatu. Garbi dago nazio politikoaren
adibide bezala jartzen direnak honeta-
ra bidean kultur nazio bilakatu direla
edo bilakatu behar izan dutela, eta kul-
tur nazioaren ulermenetik gehiago
abiatu direnak, Estatu eraiki duten
neurrian, Kant-ek planteatzen dituen
baldintzak betetzera iristen direla.

Nazio politiko, unibertsalaren adibi-
de gisa erabiltzen direnek kultur baten
partikulartasuna absolutu bihurtzen
dute estatu nazionalen. Eta unibertsal
izateari ateak ixten ez dizkion kultu-
ren banakotasunetik abiatzen direnek,
estatuaren forma lortzerakoan, parti-
kulartasun hori absolutizatu egiten
dute, honela unibertsaltasunaren ateak
itxirik, edota inperialismoaren bidez
bakarrik irekiz:

Hasieran hitza zen. Amaieran gauzak
ez dira eskerki honela izanen, etsipena-
ren ixiltasuna nagusi daitekeenean,
edota begirada pozezkoa. *Agerpen*
unibertsalaren ondoren ez da esatekorik
gehiago egongo, disimulua ezinezkoa
izango delako, ez badago irauten duen
arroz-tasunik eta iluntasunik. Baina
bitartean badago hitza, edo hobeto
esanda, hitzak daude. (Innerarity 1995:
77).

Askotan nazio politikaren ideala kultur nazio kontzeptuan oinarritutako mugimendu abertzaleak salatzeke erabiltzen da, kultur nazioaren ulermenean oinarriturik, edo bera erabiliz, gauzatutako Estatuak edo mugimenduek *errealitatean* egin dituztenak, jokabide ankerrak askotan, nazio politikoaren idealarekin neurtuz.

Askotan kultur nazioaren alde ere ematen dira argudioak, esanez gizabakoak bere nortasuna eta identitatea lortzeko kultur banakoaren eta hizkuntzaren bitartekotza beharrezkoak dituela. Ahaztu egiten da, ordea, pertsona ez dela bitartekotza horretan agortzen, baizik eta hortik abiatuz hiritar izatera irits daitekeela, hizkuntzaren eta kultura jakinaren mugak gaindituz.

Estatua da, beraz, Europaren batasuna pentsatzeko eta gauatzeko arazoa eta oztopoa. Arazo hau ez da gainditzen, edo konponbidean jartzen, kultur nazioaren aurka nazio politikoa errebindikatu; ezta Europa kultur batasun bat dela aitortuz ere, eta batasun honi estatu bat, federala bada ere, dagokiola esanez, Europako estatuak, estatu guztiei berezkoa zaien kontraesan eta etenlarri berdinak izango bailukete: unibertsaltasunaren eta partikulartasunaren artean. Eta etenlarri horregatik bere barruan etengabe unibertsaltasun-asmoan guztiz integratu ezin daitezkeen partikulartasunak sortzen joango dira, talde minorizatu berriak; edo beste era batera esanda, estatuak orain artean bezala definitzen diren bitartean, etnia berrien produzitzaile izango dira. Ikus Greenwood, Ortega, Azurmendi 1995.

Honela dio J. Echeverría irakasleak:

Hemen bultzatzen den kosmopolitismoa, kosmohiritartasuna, ez dago giza-kiak mundu bakar batean (eta gutxiago

estatu unibertsal bakar batean) batzean oinarrituta, mundu anitz batean ematen diren harremanetan baizik. Horregatik berau pentsatzeko hiritar metafora bat proposatzen da: *polis*-a, estrukturaliki berez anitza den gizarte-forma bat delako, estatuak eta inperioak ez bezala, hauek euren batasuna eta osotasuna izan baitituzte, setatsu, gai gisa (Echeverría 1995: 185).

Eta baita ere:

Etxea, sukaldea anitzu eta unibertsalizatu egiten da: eremu juridikoa markatzen dion estatuarekiko dependentzia geroz eta txikiagoa da... Estatuak beti egongo dira euren lurraldearen eta euren historiaren zamapean, ekialdeko Europan gertatzen ari den nazionalismoaren berpizteak argi erakusten duen bezala. Estatuak bere lurraldearekin duen dependentziak, gizarte-eraketa lez dituen mugak markatzen dizkio, kosmohiritartasunaren lortze bidean... hain zuzen honek (Estatu-nazioak) beraien konstituzioan historia bati eta lurralde bati begira definitzen direlako, teletxeak ez egonkorak diren bitartean, eta aldakorak denbora eta espazioan ezartzeko gaitasunari dagokionean... Baina hiritarretan oinarritutako kosmohiritartasuna, planeta osoan inoiz existitzekoa bada, Telepolis-en sortzen ari diren gizarte-harremanetatik abiatuko da, eta ez Estatuen arteko harremanetatik (Echeverría 1995: 182-183).

Gauzak honela badira, estatu nazionalak absolutismorako joera zama moduan berekin badute, eta bai nazio politiko eran, bai kultur nazio eran absolutismo horrek unibertsaltasunaren eta partikulartasunaren arteko etenlarria arindu eta konponbidean jarri beharrean areagotu besterik ez badu egiten, Estatuak bete ezineko funtzioen zama bereganaturik badute, identitate unibertsalaren oinordekotza inperialismoan bakarrik gauzatu badezakete, ondorioa ez al da, ez bakarrik

Europa ezinezkoa dela batasun politiko gisara gaur egungo estatu nazionalak dirauten bitartean, baizik eta Europa batu bera Estatu gisara eraturik funtsezko kontraesanaren eta etenlariaren handiagotze bat besterik ez litzatekeela izango?

Norbert Elias-ek bere aipaturiko lanean indar fisikoaren monopolizatzeko mekanismoek nahitaez jarraitzen dutela dio, geroz eta monopolio-esparru zabalagoak eskuratuz, honela zentralizazioa eta absolutizazioa handiagotuz.

Nolanahi ere, niretzat argi dago estatu kontzeptua bera dela berpentsatu beharrekoa, eta hori gertatzen ez den bitartean Europako batasunak ez duela zentzurik. Garai modernoetan Europan, eta honen eraginez Europaz gaindi, gauzatu diren Estatuak unibertsaltasuna batasun modura ulertzean oinarritu dira, ondorioa partikularitasunaren absolutizatzea izanik. Agian, J. Echeverría-k Telepolis-aren irudiari jarraiki proposatzen duenak izan dezake etorkizun-gaitasunik: ez egia bakarrean oinarritutako unibertsaltasuna, baizik eta aniztasunean, pluraltasunean gertatzen diren harremanen kosmopolitismoa.

Abertzale-mugimendu guztien aurka nazio politikoaren ideala erabiltzen dutenen giroan sortu diren bi kontzeptu ere aipatu nahi nituzke amaitu aurretik: abertzaletasun konstituzionala eta erreferentzia anitzeko identitatea.

Konstituziozko abertzaletasunari dagokionez, garbi ikusten da zein den bere helburua: hiritarren sentimenduak razionaldu, elkarrekin adostutako arau amankomunetara lotuz. Helburu honen baldintza konstituzioak desnazionalizatzea da, eta neurri batean lurralde batera mugatuta egotetik askatzen joatea.

Bigarrenari dagokionez, nire iritzian geroz eta gehiago gertatzen ari den zerbait da erreferentzia anitzeko identitatea. Hala eta guztiz ere, gogoan izan behar da erreferentzia anitzetan bizi den identitatea ez dela begibistakoa; berezko joera, gizakien kasuan berezko joerez hitz egiterik badago behintzat, erreferentzia bakarreko identitate itxira itzultzea da, batez ere krisi-garaietan. Eta erreferentzia anitzetako identitatean erreferentzia ezberdin horien elkarren arteko harremanaz galdetu beharko litzateke, aniztasun-gune baten inguruan ematen den ala ez etab.

Europar batasunaz hitz egiterakoan, argi dagoenez, galderak gehiago dira erantzunak baino. Eta garrantzizkoa da galderei irekirik eustea. Uste baitut garai baten amaieran egonik, N. Elias-ek dioen bezala, bizi ditugun erakunde politikoaren eraketa eta gure barne-munduaren eraketa, zein sentimendu, zein pentsamendu-mailakoa, hertsiki loturik daudenez gero, zaila dela guretzat gure gizarteetan gertatzen ari denaz ohartzea eta horregatik arazoak ez ixtea benetan garrantzizkoa da, ez baitakigu nondik nora joango diren gizarte-erakundetze berriak.

Agian erakundetze politikoekin arduratuta gabiltzan bitartean, ezagutzen ditugun estatuak politikoki batutako Europa bat ahalbideratzeko nola moldatu, estatuak hor jarraituko dute, baina bere esanahian barrutik husturik, bitartean beste gizarte-harreman mota berri batzuk nagusitzen ari direlarik. Gizabanakoen askatasunaren eta eskubideen garantia bermaturik dagoen heinean, agian ez da galera handiegia izango hainbat injustizia, gerla, kontraesan eta etenlariaren iturburu izan diren Estatuak, estatu nazionalak, esanahirik ezean galtzen joatea?

Sinesturik nago hori horrela izango dela. Bien bitartean Estatuak jarraitzen dute, ez dira desagertu, euren barne-esanahian, uste ala ez, geroz eta eraldatuagoak badaude ere. Eraldaturik dirauten bitartean euren arteko funtzionamendurako arauak beharrezkoak izango dira, eta Europarekin politika arloan zer egin pentsatzen jarraitu beharko dugu, nahiz eta barru-barruan jakin benetako arazoa arestian luze-zabal agertzen saiatu naizena dela.

Europar batasunari dagokionez bi norabide daude: Europa konfederazio nahikoa aske baten modura ulertzen duena bata, estatu nazionalai garrantzia emanaz, eta Europa federazio modura ulertzen duena bestea, estatu nazionalen funtzioa mugatuz eta murriztuz.

Azken eredu honetara jotzen bada, Europako Parlamentuari aginteak zabaldu behar zaizkio eta europar gobernu bertatik sortarazi. Eta honek behingoz, gaurko sistema gainditzea eskatuko luke, Bruselako Batzordeari arazoak konponbidean jartzeko ahalmenak eskura ematen dizkiona, eta udalerrri, erregio, edo autonomi, nazionalitate, Estatu eta Europaren arteko ahalmenen banaketa garbi bat ezarri: Europako konstituzio bat. Giro honetan izan dezake zentzurik subsidiaritate-irizpideak.

Helburu honetarako ibilbidea gelditurik dagoen une honetan, ordea, beste bi arazo gurutzatzen dira: Europaren zabaltzea, eta zabaltzeak une berean sakontzea ezinezko egiten du; eta batasun ekonomikoari, esan nahi da merkatu libreari, aurrekontu, finantza- eta moneta-batasuna gainjartzea; honetarako, ordea, elkarren arteko diferentziak sakonegiak dira, eta Europa zabalduz diferentzia horiek oraindik areagotu egiten dira.

Arazo hauek guztiak benetakoak dira, eta ez da harrizkoa hiritarren Europak nekea sortaraztea. Baina neke horren oinarrian estatu nazionalen maila gainditu ezinetik sortzen den arazoa dagoela pentsatzea zilegi da. Zertarako estatu nazional bat gehiago, handiago bada ere, hiritarrek eraketa-eredu horietatik itzulian badatoz? Ezer berririk pentsatzera ausartuko ote gara?

Oinarrizko gertakari batzuk gogoan izatea beharrezkoa da: gizabanakoaren nortasuna eta identitatea talde-bitartekotasunetik sortzen da, eta sorrera horrekiko loturak ezin dira, ezin ditu guztiz ezabatu. Batez ere krisialdian lotura horiek indarberritzeko joera dute.

Era berean, ordea, oinarrizko zaio gizabanakoari bere nortasuna askatasunean oinarritzea, bere buruaren jabe izatera iristea, honek berez emanikoak zaizkion loturak gainditzea esan nahi baitu. Honela bakarrik irekitzen da unibertsaltasunerako bidea, gizakien berdintasunean oinarrituz eta guztien berdintasuna onartzuz.

Unibertsaltasunak eta berdintasunak ezin esan nahi dezakete, ordea, batasunkeria, uniformismoa. Giza izaeraren eta bere askatasunaren bermatzeko diferentzia beharrezkoa da, eta horregatik pluraltasuna, aniztasuna gizakiarentzat oinarrizko gertakari da.

Aniztasunaren baldintza den diferentzia ez da, ordea, talde-loturen lehentasuna atzeko atetik berriro sartzeko aitzakia, nahiz eta baldintzetako bat izan. Baina benetako diferentziak gizabanakoen artean ematen dira, eta hauetan oinarritzen da aniztasuna.

Praktika politikoak elementu hauen guztien oreka lortu beharko luke: be-rezko taldearekiko erreferentzia, baina gizakien banakotasunerantz gainditu behar dena; unibertsaltasunerako bideak zabaltzeko eta hauetan berdintasuna gauzatu ahal izateko, baina berdinkerian eta batasunkeria erori gabe, diferentziaren balioan oinarritu-tako pluraltasuna bizitzeko. Elementu hauen guztien arteko oreka, nahiz eta gizabanakoa hiritar lez eratu, estatu nazionaletan hautsi egiten da, partiku-

lartasun-erreferentzia, talde-errefe-rentzia, absolutizatu egiten delako.

Oreka berri bat aurkitu nahi bada, estatu nazionalaren izaera barrutik berpentsatu beharra dago, gizaba-nakoari bere askatasuna eta eskubi-deak ziurtatzen dizkion historiaren lorpenari uko egin gabe. Europak une honetan munduari eskain diezaio-keena, berpentsatze-prozesu hori bultzatzea da.

Bibliografia

- Blas Guerrero, A. de, (1995): *Nacionalismos y naciones en Europa*, Alianza Universidad, Madril.
- Echeverría, J., (1995): *Cosmopolitas domésticos*, Anagrama, Bartzelona.
- Elias, N., (1977): *Über den Prozess der Zivilisation. Soziogenetische und psychogenetische Untersuchungen*, Suhrkamp Taschenbuch Verlag, Baden Baden, lehen liburua.
- Greenwood, D.J., Ortega, A., Azurmendi, M., (1995): "Debate sobre la etnicidad", *Bitartean. Revista Cuatrimestral de Humanidades*, 3 urtea, apirila, Donostia, 61-101.
- Innerarity, D., (1995): *La filosofía como una de las bellas artes*, Ariel Filosofía, Bartzelona.
- Jauregi, G., (1988): *Contra el Estado-Nación*, Siglo XXI de España Editores, Madril.
- Paulsen, F., (1924): *Inmanuel Kant*, Fr. Frommanns Verlag, Stuttgart.
- Troeltsch, E., (1912): *Die Soziallehren der christlichen Kirchen und Gruppen*, Tübingen.
- , (1951): *El protestantismo y el mundo moderno*, Fondo de Cultura Económica, Breviarios, Mexiko.